

FARMAZIETAN JASOTZEN EZ DIREN MEDIKAMENTUEN PRESKRIPZIO KRONIKOAK ETA ESKAERAREN ARABERAKOAK (A DEMANDA) BEHIN-BEHINEAN ETETEA

2020ko iraila

Gaur egun, iraupen luzeko 6 milioi tratamendu aktibo daude gutxi gorabehera Presbiden (4 milioi kroniko eta 2 milioi eskaeraren araberakoak "a demanda"), eta, ehuneko handi batean, pazienteak ez ditu botikak jasotzen farmazian eta, beraz, ez ditu hartzen.

Egoera hori ikusita, eta Osakidetzako egokitzapen farmakoterapeutikoko talde korporatiboak proposatuta, prozesu bat garatu da Presbiden farmazietan jasotzen ez diren preskripzio kronikoak eta eskaeraren araberakoak behin-behinean eteteko modu kontrolatuan. Egiten den mota horretako laugarren esku-hartzea izango da, eta **380.000 preskripzio** inguru behin-behineko etenaldira pasatzea ekarriko du (preskripzio guztien % 6). Hartara, Historia Farmakoterapeutikoa "araztuko" da, eta gehiago hurbilduko da pazientearen "benetako" tratamendura. Neurri horri esker, beraz, segurtasun-arazoak ekidingo dira.

Orain arte, preskripzioak behin-behineko etenaldira pasatzeko prozesua puntuala eta kontrolatua izan da. Epe laburrera, asmoa da prozesua Presbiden integratu eta automatizatzea, lantzean behin exekuta dadin. Horregatik, garrantzitsua da klinikoei eta gainerako profesionalek erlazionatutako intzidentzien berri ematea helbide elektronikoa honetan: PRESCRIPCIÓN.ASISTENCIASANITARIA@osakidetza.eus

Hona hemen prozesuaren xehetasunak, irailaren 19ko asteburutik aurrera aplikatuko direnak.


BEHIN-BEHINEAN ETENGO DIREN PRESKRIPZIOAK

1. Azken 8 hilabeteetan jaso ez diren MEDIKAMENTU FINANTZATUEN preskripzio kronikoak. Lehen, prozesu arinetako medikamentuetara eta akutu gisa edo eskaeraren arabera (a demanda) preskribatu behar ziren tratamenduetara mugatzen zen prozesua. Orain, medikamentu finantzatu guztietan egingo da.
2. Azken 12 hilabeteetan jaso ez diren efektuen eta osagarrien preskripzio kronikoak (galtzerdiak, gernu-iheserako xurgagarriak, inhalazio-kamerak...).
3. Azken 36 hilabeteetan jaso ez diren eskaeraren araberako (a demanda) preskripzioak.

Ez dira behin-behineko etenaldira pasatuko preskripzio kronikoak eta eskaeraren araberakoak (a demanda) baldin eta farmazian ez jasotzeak ez badu esan nahi medikamentua hartzen ez denik; adibidez, kasu hauetan:

- Zentro soziosanitarioetan ingresatutako pazienteak.
- Mutualitate sanitarioetan dauden pazienteak (Muface, Isfas, Mugeju).
- Atzerriko medikazioagatik hartzeko preskripzio aktibo bat behar duten medikamentuen bidezko tratamenduak (sukralfatoa, nalodola...).
- Prozesu larriei heltzeko "eskaeraren araberako" (a demanda) tratamenduak, zeinetan medikamentua kentzea denboran dezente luzatu ahal den (glukagona, epinefrina, salbutamola, terbutalina, formoterola eta budesonidinarekin asoziazioa).
- Medikamentu ezfinantzatuak.

EGOERA PRESBIDE-N: “Farmazian jaso ez izanagatik behin-behinean etenda”

 **“Preskripzioa eten egin da, ez delako farmazian jaso”.**


Preskripzioaren xehetasunetan ikusten da egoera-aldaketaren arrazoia:



Egoera honetan, preskripzioa ezingo da eman farmazia-bulegoan.

PRESKIPZIOAK “AUTOMATIKOKI” AMAITZEA

“Farmazian jaso ez izanagatik behin-behinean etenda” egoeran 3 hilabetez egon ondoren medikuak preskripzioa ez badu aktibatu, preskripzioa amaitu egingo da.

<input type="checkbox"/>		12/09/2018	C	E	Sintrom 1mg 60 Comprimidos
<input type="checkbox"/>					Lorazepam 1mg 50 Comprimidos
<input type="checkbox"/>					Media Larga Comp Fuerte
<input type="checkbox"/>					Omeprazol 20mg 14 Capsulas

Prescripción finalizada : No recogida en farmacia. Se ha realizado la finalización automática de la prescripción.

Preskripzioaren xehetasunetan, egoera-aldaketaren arrazoia ere ikusten da:

AA00X – Farmazian ez da jaso. Preskripzioa automatikoki amaitu da.



FARMAZIAN JASO EZ IZANAGATIK BEHIN-BEHINEAN ETENDA DAUDEN PRESKIPZIOEN KUDEAKETA

- Preskripzio hauek EZ dira agertzen egiteke dauden zereginen atalean, eta, horregatik, litekeena da hortik hiru hilabetera automatikoki amaitzea medikua horretaz konturatu ere egin gabe, non eta pazientea ez doan kontsultara medikazioarekin jarraitzeko eskatzera.
- Preskripzio hauek ez dira azalduko luzapenean preskripzioen blokean.

Preskripzioa aktibatuzeko, kasuan kasuko preskripzioan sartu beharko da, eta beste berrikuspen-data bat jarri.